



AISIALDI-KIROL MAHAIA

2021eko irailaren 14a

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDA:

1. Sektorearen egungo egoeraren analisisa.
2. Gai hauek jorratzen dituen informazioa:
 - a) Bilbao Bizkaia Turismo Bonua.
 - b) Online prestakuntza-egutegia.
 - c) "Getxo Bihotzetik" proiektua.
 - d) "Familia Turismoaren Programa" deritzon Produktuaren Kluba.
 - e) 2021eko Getxo Bonua: kanpainari buruzko datuak.
 - f) Tokiko kontsumoarekiko sentsibilizazio eta sustapen kanpaina.
 - g) Dinamizaziorako 2021erako laguntzak.
 - h) Covid-19ari aurre egiteko aparteko laguntzak.
 - i) Kontrataziorako 2021erako laguntzak.
 - j) 'Batuz' sistema.
 - k) Getxo Itsas Huben nobedadeak.
3. Ideai eta proposamen berriak.
4. Galderak, iradokizunak eta beste gai batzuk.
5. Hurrengo urratsak.

BATZARKIDEAK: (% 9)

DEITUAK		BATZARKIDEAK	ABSENTZIAK	
			Justifikatutakoak	Justifikatu gabeak
Polaris Nautika Eskolaren sektore-ordezkarria eta gerentea	Héctor García	X		
Sea Experiences				
2 Millas	David Benavente			X
Náutica Galea	Javier Gutiérrez		X	
Marmitako Sailing	Eduardo Arostegui			X



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

Sailing & Wine	Natxo Taibo			X
Náutica Ballestrinque	Alejandro Bracho			X
Náutica Arriluze	Roberto Santos			X
As de Guía	Javier Peña			X
Sotavento Nautika Eskola	Alfonso Hernández			X
Jose Luis de Ugarte Bela Eskola	Eduardo Santamarina			X
Pakea Bela Eskola	Gonzalo Terceño			X
El Bote Tours	Juan Olabarria			X
Getxo Watersports Jet	Iñigo Martínez (acude Olga Zabala en representación)	X		
Planeta Jets	Olga Zabala	X		X
Getxoport	Jose Miguel Larrinaga		X	
La Mar de Bien	Jose Muro			X
Acero Surf Eskola	Eneko Acero			X
La Salbaje Surf Eskola	César Maceda			X
Barrika Surf Kanp	Nagore Nicolas	X		
Alaia Surf	Salva			X
Northwind Getxo	Iria Villar			X
La Kantera Skate Eskola	Borja			X
Arrecife	Jose Manuel Rodriguez			X
Dive Tarpoon	Julen Ibinaga			X
Loizaga Prest	Imanol Loizaga			X
Caminar en Silencio	Josu Belmonte			X
Geotxiki	Aintzane Goffard			X
Ekobideak	Imanol López			X
Euskadi Trek	Marisa Lago	X		
La Galea Hipika Kluba	Inmaculada Fernández			X
Fangaloka Style	Sergio Vadillo Gil			X
Iparapente	Aritza Irurizaga			X
Parapente Bizkaia	Wiso			X
UK Parapente	David Tardaguila San Tirso			X
Bicis Txofi	Joseba Mirena Ruiz			X
Ciclos Olabarria	Mikel Achaerandio			X
Deskonecta	Begoña Oca			X



Getxoko Udala - Ekonomia Sustatzeko Arloa	Jose Rica	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Sara de la Fuente	X		

EDUKIAK:

1. Batzarkideei agurra eta sektorearen egungo egoeraren analisia.

Batzarkideak agurtu eta aurkeztu dira, eta, ondorik, talde-eztabaida txiki bat egin da, udako denboraldia nola gertatu den eta, urtarokotasuna dela eta, sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren aztertze aldera. Ildo horri jarraikiz, bertaratutakoek honako agertoki hau azaldu dute:

EuskadiTrekoko Marisa Lagok esan du ekainetik aurrera murrizketa asko kendu zirela, eta orduan hasi zirela lanean. Haren kasuan, atzerritarren bat izan ezik, erabiltzaile guztiak tokikoak edota ohiko bezeroak izan dira, eta, hainbestez, horiek finkatzea izan dute helburu nagusi. Datorren urteari begira, nazioarteko bezeroak erakartze aldera hasi dira lanean.

Polaris Nautika Eskolako Hector Garciak azaldu duenez, lehen hiruhilekoa nahiko txarra izan zen murrizketak zirela eta. Horregatik, beren burua berrasmatea erabaki zuten, hots, eskaintzen dituzten jarduera motei dagokienez lan egiteko modua aldatzea, beren eskaintza tokiko publikoa erakartzera birbideratuz, eta beren egoerak hobera egin du. Nabarmendu du bezerorik gehienak tokikoak izan direla, eta geografikoki mugitzeko mugak eta eragozpenak daudenez, alde horretatik zerbait onuragarria izan dela. Etorkizunari begira, aukerak zabaldu eta bezero atzerritarrekin ere lan egin nahi dute.

Planeta Jets-eko Olga Zabalak alde handia ikusten du iaztik aurtengora. Aurten nabaritu da herritarrek jada mugitzeko askatasun handiagoa izan dutela, eta 2020an baino bertoko bezero gutxiago izan dituztela, eta atzerritar asko eta asko (bereziki Frantziatik etorritakoak). Udako denboraldiaren balantzea oso positiboa izan da.

Azkenik, Barrika Surf Kanp-eko Nagore Nicolásek adierazi du uda aurreko denboraldia gogorra izan dela, surf eskolak emateko aukerarik ez zegoelako; baina, uda iritsita, egoera nabarmen hobetu da, batez ere uztailan, umeentzako udalekuei eta 'kanp'ei esker. Aitzitik, abuztua lasaia izan da, eta, oro har, atzerriko erabiltzaile gutxi izan direla azpimarratu du. Datorren denboraldiari begira, bezeroak leialtzea izan dute helburu, neguan asteburuetak eskolekin jarraitze aldera. Beste alde batetik, ilusioz beteriko proiektu berri bat lantzen ari dira, surf inklusiboa ardatz duena.



Ikuspegi teknikitik begiratuta, eta turismo-bulegotik eskuratutako datuak kontuan harturik, ondorioztatzen da oraindik ez garela 2019ko kopuruetara iritsi, baina esan behar da nabarmen berreskuratu dela bisitarien etorrera. Alde batetik, atzerriko turistak % 15 izan dira (2019an % 30 inguru ziren); turista horiek, batik bat, banaka edota familian bidaiatu dute; bestetik, estatuko bidaiarien kopuruak nabarmen egin du gora (guztizkoaren % 71 izan dira), halako moldez non turismo-sektorea suspertzen nabarmen lagundu baitute.

Beste erakunde batzuetatik (BFAtik edota Eusko Jaurlaritzatik) helarazten diren aurreikuspenei dagokienez, urritik aurrera aire-konexioak berriz irekiko direla nabarmentzen da, eta, horrenbestez, nazioarteko turismoa laster areagotuko dela ulertzen da.

2. Honako gai hauek jorratzen dituen informazioa:

a) BILBAO BIZKAIA TURISMO BONUA:

Iraila heltzen denean, sektoreari dagozkion jardueren eskaria geroz eta urriagoa izango da. Hori dela eta, urteko azken lauhilekoan turismoaren arloko eskaria sustatze aldera, Bizkaiko Foru Aldundiak bonu hau sortu du, Bilboko Udalarekin batera.

Horrezaz gainera, Euskadi Turismo Bonuaren *modus operandi* bera izango du eta, bonu horri atxikita dauden guztientzat, bonu-kanpaina berri honetarako aurkeztu beharreko dokumentazioa urriagoa izango da, eta sarbide-gakoak berdinak izango dira. Azpimarratu behar dugu, halaber, bi bonu horiek elkarren artean metatu ahal izango direla; hau da, erosketa bera egiteko, Euskadi Turismo Bonua eta Turismo Bilbao Bizkaia Bonua batera erabili ahal izango dira, halako moldez non bezeroak % 83 inguruko deskontua lortu ahal izango baitu.

Egun dauden bonu motak azaltzen dira, eta sektore honetarako interesgarria da *Turismo Jardueren Bonua*, 50 €-koa (% 50eko finantzaketa du). Honako hauek dira kontuan hartu beharreko data garrantzitsuak:

- **ATXIKIMENDUAK** (enpresak/establezimenduak): abuztuaren 23tik abenduaren 31ra (edo agortu arte). Teknikoki ahalik eta lasterren egitea gomendatzen da, betiere irailaren 22a baino lehen, bonua sustatzeko kanpaina datozen egunetan hasiko baita.
- **BONU-SALMENTA** (bezeroak): irailaren 22tik abenduaren 31ra (edo agortu arte).
- **BONU-TRUKEA** (enpresak/establezimenduak eta bezeroak): irailaren 22tik abenduaren 31ra (edo agortu arte).



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

Informazio gehiago, hemen: [Hasiera > Getxon bizi > Getxolan > Berriak - Xehetasuna](#)

Enpresa batzuek adierazi dute dagoeneko bat egin dutela ekimenarekin (Polaris Nautika Eskola eta Euskaditrek); Barrika Surf Kanp-ek, berriz, informazioa bidaltzeko eskatu du.

b) ONLINE PRESTAKUNTZA-EGUTEGIA:

Batzarkideei jakinarazi zaie online prestakuntza berriak eta doakoak daudela; prestakuntza horiek interesgarriak dira hobetzen eta hazten jarraitzeko sektorearen jardura jaisten hasi den denboraldi honetan (ikus 5-6. diapositibak).

Bereziki aipatzen da prestakuntza horiek guztiak **Etika Kodearen** programaren barruko prestakuntzat hartzen direla, eta, hainbestez, **emaitzetan puntuatzen dutela urte amaieran erdietsitako beharkizunei dagokienez**. Horregatik, programa honetan parte hartzen arituz gero, egindako ikastaroen berri ematea hagitz garrantzitsua dela jakinarazten da.

Beste alde batetik, astearte komertzialen jardura berreskuratzen da, hau da, salmentaren gai komertzialera berariaz bideraturik dauden saioen zikloa. Talde-hausnarketa eta banakako lana, aholkularitza-zerbitzuekin batera. Hurrengo saioen datak ematen dira. (Ikus 7. diapositiba).

Informazio gehiago, hemen:

<https://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/544>

c) "GETXO BIHOTZETIK" PROIEKTUA:

Getxo bihotzetik proiektua aipatzen da, "GetxoEkinez!" en onartutako ezohiko proiektuetako bat legez. Proiektu horrek mahai sektorialen eskaera batzuei erantzuten die, eta helburu nagusi hauek ditu:

- ✓ Ostatu-gauak areagotzea.
- ✓ MICE (Meetings, Incentives, Conventions and Exhibitions) zerbitzuak eta baliabideak Bilbo Handiko eta Bizkaiko enpresei ezagutaraztea.
- ✓ Getxora estatuko eta nazioarteko kalitate-talde berriak erakartzea.

Horretarako, lantalde bat sortu zen, non zerbitzuen hornitzaileak eta ekimenak garatzeko arduradunak sektore berekoak baitira, Udalaren laguntzarekin. Talde eragilea Mice Design-eko Virginia Pérez eta Go Basquing-eko Iñigo García Valenzuela dira.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

Ondoko hauek dira jarduera-ildo nagusiak:

1.- *Nola proiektatuko garen eta zer erakarri nahi dugun definitzea*, Getxo markaren balioak identifikatuz eta gure produktuak eta zerbitzuak kokatzen lagunduko diguten "istorioak" sortuz. Getxoko mahai sektorialekin eta enpresa-sare osoarekin parte hartuz eta lan eginez.

2.- *Beren negozio-eredua edota zerbitzu-eredua berrikusteko interesa duten enpresei laguntzea*, hobekuntza-arloak definituz eta produktu eta esperientzia berriak zehaztuz, edota egun badaudenak MICE merkatuan saltzeko egokituz.

3.- *Online komunikatzeko eta merkaturatzeko kanpaina*, "istorio", zerbitzu edota produktu horiek zabaltze aldera.

4.- *Alderantzizko merkaturatze-jardunaldiak antolatzea*: Fam-Trip (familiarizazio-bidaia) presentzialak (5) eta birtualak (10), eskaintza enpresa eta eragile interesgarriei ezagutarazteko, erosi edota merkaturatu ahal izateko.

Adibide gisa, goiz oso batean udalerrian zehar hainbat jarduera antolatzen dira beraientzat, enpresa horiek esperientziak bertatik bertara bizi ditzaten eta eskaintza horren atzean dauden enpresak ezagutu ditzaten loturak ezarri ahal izateko. Gakoa bereizketa da, hots, jarduera edo istorio bakar eta desberdinak eskaini ahal izatea.

Orain arte, maiatzetik ekainera, burutu diren ekintzak eta irailetik abendura bitartean egingo direnak azaltzen dira (ikus xehetasunak 9-10-11-12. diapositibetan). Argigarri gisa, bideo hau ematen da:

<https://drive.google.com/file/d/1oOYHWL22F94Yk3tN6gLOmSb92IagYcr3/view?usp=sharing>

Enpresa guztiek parte har dezakete proiektu honetan, eta bat egin dezakete honako helbide elektroniko honetara mezu bat bidaliz: visitgetxo@getxo.eus

MICE zerbitzuen egungo egoerari dagokionez, nazioarteko eskaerak iristen ari direla azaldu da. Hala ere, aurtengo helburu nagusia MICE zerbitzuak eta produktuak saltzea zen Bizkaiko bertako enpresei eta zerbitzu horiek behar dituzten enpresa guztiei. Merkatu-gune hori ere indartsua da, nahiz eta azkenaldian zertxobait ahaztuta egon.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

d) "FAMILIA TURISMOAREN PROGRAMA" DERITZON PRODUKTUAREN KLUBA:

Udal teknikariak azaldu duenez, duela 3 urte "Familia Turismoaren Programa" motako Produktu Klub bat merkaturatu zen BasqueTourren eskutik, "Surfing" edo "Euskadi Gastronomika" izeneko Produktu Klubaren antzera funtzionatzen duena.

Egungo proiektuaren ideia familien beharrekin bat datozen enpresak identifikatzea da, zerbitzuak eta produktuak modu bateratuan eskaini ahal izateko. Garrantzitsua da zehaztea ezen jarduera horiek ez direla "haurrentzat" izan behar, baizik eta "familian" gozatu ahal izateko.

Proiektuan parte har dezakeen enpresa motari buruzko xehetasunak ematen dira, bai eta proiektuan parte hartzeko aztertzen diren alderdiak ere (hautazko baldintza batzuk eta nahitaez bete beharreko beste batzuk daude), eta proiektuak ematen dituen onurak (ikus xehetasunak 14-15. diapositibetan).

Izena emateko epea irailaren 30ean amaituko da (urriaren 10era arte luzatuko da). Izena ematea guztiz doakoa da enpresentzat, eta honako helbide elektroniko hauen bidez izapidetuko dira:

turismofamiliar@getxo.eus
turismofamiliarra@getxo.eus

Asmoa da, interesa duten enpresak inskribatu ondorik, urritik otsailera bitartean haiekin lanean hastea, 2022ko Aste Santurako prest egon ahal izateko.

Enpresek banakako aholkularitza jasoko dute, diagnostiko bat egingo zaie Klubaren beharkizunen betetze-maila ezagutzeko, hobekuntza-plan pertsonalizatu bat emango zaie, beharrezkoak diren hobekuntzak ezartzen joan daitezen, eta, azkenik, behar duten guztirako laguntza emango zaie.

Informazio gehiago, hemen: [Planak hurrekin Euskadin – Familia turismoa](#)

e) 2021EKO GETXO BONUA. KANPAINARI BURUZKO DATUAK:

2021/09/06an jaso diren datuak erakutsi zaizkio mahaiari (ikus 16-17-18. diapositibak). Sektoreei dagokienez, trukatu diren bonuen kopuruari doakionez, sektore honi zorionak eman zaizkio bonu horiek sustatze aldera egin dituen ahaleginengatik eta, ondorioz, iazko emaitzekiko kokapen ona erdiesteagatik.



Izan duen harrera ona aipatu du Hector García, eta 2022rako ere horrelako neurriekin jarraitzea proposatu du.

f) TOKIKO KONTSUMOAREKIKO SENTSIBILIZAZIO ETA SUSTAPEN KANPAINA:

Kanpaina horren leloa "Garrantzitsuena beti eskura" da, eta Enpresen Kontsulta Foroak eskatuta sortu zen. Kanpaina horren helburu nagusia udalerriko establezimenduen kontsumoa sustatzea da. Kanpaina honek bi merkaturatze- edo indartze-txanda zituen: bata maiatza-ekaina bitartean eta, hurrengo, urria-azaroa bitartean. Hainbestez, jakinarazten zaie ezen urritik aurrera publizitate-euskarriak berriro helaraziko zaizkiela, partekatu ahal izateko.

Ildo horri jarraikiz, eskuratu diren datuen emaitzak erakusten zaizkie batzarkideei (ikus xehetasuna 19. diapositiban). Horrezaz gainera, gauzatutako intzidentzia eskualde mailakoa zen: Getxo, Leioa, Erandio, Sopela, Berango, Plentzia, Barrika, Gorniz eta Urduliz.

g) DINAMIZAZIORAKO 2021ERAKO LAGUNTZAK:

Laguntza-lerro hauen emakiden ondoriozko proiektuak eta berauen esleipendunak azaldu dira (ikus xehetasunak 20-21-22. diapositibetan); gai honi dagokionez, sektorearentzat bereziki interesgarriak dira 2., 3. eta 4. lerroak, eta aukera aprobetxatu da batzarkideak hurrengo urteari begira horiek eskatzera animatzeko.

Halaber, lerro horien eskatzaile guztiei gogorarazten zaie ez dagoela urte amaierara arte itxaron beharrik laguntza justifikatzeko. Izan ere, jarduera amaitzen denean egitea komeni da, zeren eta horrela diru-laguntzaren gainerako zatia (% 25) kobratzen baita.

h) COVID-19ARI AURRE EGITEKO APARTEKO LAGUNTZAK:

Covid-19ari aurre egiteko aparteko laguntzei dagokienez, atxikimenduen lehen epealditik (05/29 - 06/14) atera diren datuak honako hauek izan ziren:

- **257 eskabide:** 248 laguntza eman ziren, guztira 324.680 euro; 6 eskabide ukatu ziren, eta 3 enpresak atzera egin zuten.
- Enpresa onuradunen profila:



- 173 enpresak eskatu zituzten laguntzak, **sektorea ixteagatik**.
- 75 enpresak eskatu zituzten laguntzak, **udalerrriaren itxitura perimetralagatik**.
- Enpresen **sektoreen** arabera:
 - Ostalaritza: 173 (% 69,8)
 - **Turismoaren arloko zerbitzuen enpresak: 27 (% 10,9)**
 - Ostatuak: 5 (% 2)
 - Taxiak: 43 (% 17,3)
- Enpresen forma juridikoaren arabera:
 - Pertsona fisikoak: 144 (% 58,1)
 - Ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko beste elkarte batzuk: 29 (% 11,7)
 - Pertsona juridikoak: 75 (30,2%)

Bigarren epealdian (05/11 – 06/30), **hirugarrenean (gaur egungoan, 09/01 – 09/15)** legez, ez da eskabiderik jaso. Hala ere, laguntza hau urtea amaitu arte egongo da indarrean, gerta daitezkeen egitateengatik.

Informazio-koadroa:

https://www.getxo.eus/DocsPublic/getxolan/AYUDAS_COVID_2021/Web_Ficha_Resumen_Ayudas_Covid_2021_eus.pdf

i) KONTRATAZIORAKO 2021ERAKO LAGUNTZAK:

Era berean, Mahaiari jakinarazi zaio Lanbidek urtero ateratzen dituela laguntza horiek, interesa duten udalei bi jarduera-ildotara bideratuko den diru-kopuru bat emateko aldera:

- Udaletan langile laguntzaileak kontratatzea.
- Enpresei zuzendutako deialdi publiko bat abiaraztea, haien kontratuak diruz lagundu ahal izateko. Aurtengo deialdiak **2021eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako kontratuak** estaliko ditu.

Gaur egun, Udala Lanbideren ebazpenaren zain dago. Nolanahi ere, 2020ko laguntzaren baldintzen laburpen-taula ematen da, 2021eko deialdian ere berori errepikatuko baita:

https://www.getxo.eus/DocsPublic/Ficha_Resumen_Ayudas_Contratacion_2020_eus.pdf



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

j) 'BATUZ' SISTEMA:

Berrikuntza gisa, jakinarazi da Foru Ogasunak bere nahitaezko ezarpen-data **2024ko urtarrilaren 1era** luzatu duela. Hala ere, egokitzapena data hori baino lehen egiten duten enpresa guztiek oraindik zehaztu gabeko zerga-kenkariak jasoko dituzte Foru Ogasunaren aldetik.

Horrezaz gainera, Enpresen Kontsulta Foroan landutako eskaeretako bat, atzo politikariei Kontraste Mahaian helarazi zitzaiona, enpresei zuzendutako laguntza-lerro bat abiarazteko aukera zen, trantsizio horrek sektoreei ekarriko dizkien inbertsio guztiei aurre egin ahal izateko. Udal teknikariak horren inguruan hartuko den erabakiaren zain daude.

Egokitzapen horretan lanean jarraitzeko, online informazio-jardunaldiak eskaintzen jarraituko da, bai eta ondorik banakako aholkularitza jasotzeko aukera ere. Hurrengo saioak honako hauek izango dira:

- 09/29; 13.30etatik 14.30etara
- 11/09; 13.30etatik 14.30etara

Izen-emateak webgune honetan jasoko dira: www.getxo.eus (egun bat lehenago, gutxienez)

Batuz sistemari buruzko informazio gehiago hemen: Hasiera - BATUZ - Bizkaia.eus

- Homologatutako softwareen zerrenda: Software erregistroa - BATUZ - Bizkaia.eus
- Borondatez ezartzeko pizgarrien iragarkia: Batuzen derrigortasunaren atzerapena eta borondatez ezartzeko pizgarri berriak - Área de prensa - Bizkaia.eus

k) GETXO ITSAS HUBEN BERRIAK:

Jose Rica udal teknikariak, Getxo Itsas Huben helburua zein den azaldu dio Mahaiari. Itsas Industria eta Lerratze Industria sustatzea du xede, Sopelako Udalarekin sinaturik duen hitzarmenaren ildotik, surfaren industria babeste aldera, eta bai Bizkaia Orekan deritzon programaren ildotik ere.

Getxo Itsas Hub: espazio fisiko berria Kirol Portuan, non sektoreko enpresa batzuek ostatu hartu duten, euren artean sinergiak sortze aldera.

Duela gutxi, azken enpresa sartu da, ingurumen-aholkularitzakoa, eta bere produktua, berez, itsaspekoen aplikazioen garapena/ezarpena da,



ikerketaren esparrutik hasi eta turismoaren esparrura arte. Horrenbestez, une honetan, Hub hori okupazioaren % 100ean dago.

Eremu horretan prestakuntza-ekintzak, jardunaldiak eta ekitaldiak sortzen ari dira:

- Mini 6 bela estropada. -Uztaila
- Itsas Industriako eta Lerratze Industriako Ekonomia Zirkularri buruzko Jardunaldia (produktu ekologikoen fabrikazioa belaren eta surfaren alorren inguruan, besteak beste). -Uztaila
- Surf Business Meeting. Urriak 7-8-9. Sopolako Udalak antolatua.

Espazio honetan, Hubean sartuta ez dauden beste enpresa batzuek ere parte har dezakete, instalazio batzuen erabilera puntualerako.

Beste alde batetik, Hector Garcíak adierazi du pozik dagoela instalazio horri dagokionez. Sektoreari hobekuntza ekarri dio proiektatzen duen irudiari dagokionez, eta bezeroen harrera-prozesua nabarmen errazten du.

3. Ideia eta proposamen berriak:

Aipatu da ezen une honetan Udala eta administrazio publikoak 2022rako aurrekontuak prestatzen ari direla, eta urtearen hasieran itxi ohi direla. Atzo, Kontraste Politikorako Mahaian, urte hasierako mahaietatik atera ziren sektore guztien eskaera eta behar askoren berri eman zen.

Hala ere, sektoreko enpresak sektorearen egoera orokorra hobetzeko landu beharreko proposamen edo gairen bat dagoen baloratzera animatzen dira, hori helarazteko unea baita. Xede hori erdieste aldera, posta elektronikoko kontu hau ematen da, ekarpenak bertara igorri ahal izateko:

ociodeportivo@getxo.eus

4. Galderak, iradokizunak eta beste gai batzuk.

Batzarkideek berretsi egin dute aurreko Kontraste Politikorako Mahaian planteatu zen proposamena, hau da, kirol portuaren irisgarritasuna hobetzea garraio publikoko linea baten bidez. Halaber, Ereagako TAO linearen instalazioa birplanteatzea ezinbestekoa dela uste dute; haien aburuz, neurri horrek zonan instalatuta dauden enpresak zigortuko ditu.

Beste alde batetik, kirol portuaren instalazioak berritzeari dagokionez, Hector Garcíak aurreko bileretan hartu zen konpromisoa gogorarazi du, hau da, eragindako enpresei urteko azken hiruhilekoan kirol portu berriaren proiektuari buruzko informazioa ematea.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Olga Zabalak adierazi digu bidaltzen ditugun komunikazio batzuk jasotzen dituela, baina ez guztiak. Harremanetarako ezarririk dituen mezu elektronikoak berrikusteko eskatu du.

Batzarkideek Expovacacionesi buruz galdetu dute. Euskaditrek eta Planeta Jets enpresen kasuan, egin duten proposamena zein egoeratan dagoen jakin nahi dute: tailerra eta zozketa.

Barrika Surf Kanp enpresak adierazi du ez duela parte hartzeko gonbidapenik jaso.

Polaris Nautika Eskolak baieztatu du beraiek joango direla eta eskuartean duten programazioarekin bat datozela. Programazio horretan Getxoko hainbat enpresa daude.

Gai hori beste lankide batek kudeatzen duela azaldu da, eta planteatzen diren zalantzak helaraziko zaizkio, hark ebatz ditzan.

5. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa: urriaren 5ean. Foro horretan, Sektoreko ordezkariak lehentasuna emango diete mahai sektorialetatik jasotzen diren proposamenei. Aisialdi-Kirol Mahaiaren proposamenak honen ordezkaria den Hector Garciak defendatuko ditu.

AISIALDI-KIROL MAHAIAREN ERABAKIAK (2021/09/14):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bileraren aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bilera egiten denetik aurrera
2. Olga Zabalaren (Jets Planeta) harremanetarako datuak berrikustea, inoizko komunikazioetarako	Zerbitzuko teknikariak	Bilera egiten denetik aurrera
3. Expovacacionesen inguruan sortu diren zalantzen berri ematea turismoa sustatzeko teknikariari, enpresei erantzun diezaien	Zerbitzuko teknikariak	Bilera egiten denetik aurrera
4. Enpresei "Garrantzitsuena beti eskura" izeneko kanpainari dagozkion kreatibitateak bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Urria baino lehen
5. Proposatzen diren programa eta ekimenekiko atxikipena edota inskripzioa baloratzea	Sektoreko enpresak	Bilera egiten denetik aurrera



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

6. Kirol-portuak urtea amaitu baino lehen egindako aurrerapenei buruzko informazio-bilera egiteko konpromisoa gogoraraztea	Zerbitzuko teknikariak	Bilera egiten denetik aurrera
7. Sektorearen egoera hobetu dezaketen edota sektorearen posizionamendua hobetzen lagun dezaketen proposamenak bidaltzea, 2022. urtean horiek guztiak gauzatze aldera	Sektoreko enpresak	Irailaren 28a baino lehen